

Elgoibar - 1269 - zerb
XXX. urtea - 2023-01-05



TOKIKOM BARREN



Hortzak estuturik



ESKERRIK ASKO!

Giro berezia sortu zen Kalegoen plazan abenduaren 24an. Eguraldia lagun genuela, Kalegoen plaza jendez bete zen. Olentzero eta Mari Domingi, taloak eta Lizagasarreko produktuak, eta 2013an martxan jarri genuen Elgoibarko Izarraren aldeko tonbola. Gero eta estimazio handiagoa duen tonbola, bi urteko etenaren ondoren, aurten, zuei esker, berriro antolatu ahal izan duguna. Handia da Elgoibarko Izarraren alde egiten duzuenak, eta eskerrak eman nahi dizkizuegu, bene-benetan, egiten duzuenagatik. Eskerrik asko opariak eman dituzuenoi, opariak erosteko dirua eman diguzuen enpresei, boletoak erostera etorri zinetenoi, eta antolakuntza-lanetan parte hartu eta lagundu zeniguten guztioi. Zuek gabe ezingo zatekeen egin. Eta barkamena ere eskatu nahi dizuegu tonbolako opariak jasotzerakoan arazoren bat izan zenutenoi; dena ez da beti nahi bezala irteten. Eskerrik asko, guzti-guztioi, eta, zuek nahi baduzue, datorren urtean ere Kalegoen plazan bilduko gara abenduaren 24an.

- . eus ■2. estankoa ■40-15 Tenis elkarteak ■Abatetxe landetxea ■AEK euskalgia ■Aerotxuri S.L. ■Agurtzane ile-apaindegia ■Ainara Arnaiz ■Aitor Etxeberria ■Aitziber Aranberri (EH Bildu) ■Aitziber Garmendia (Tentazioa) ■Alcorta Forging Group ■Alfonso Guilló ■Alire estetika ■Alkorta Bakailoak ■Altzola Berazeta baserria ■Amagoia gozo denda ■Amaia fruta denda ■Ametsa kafetegia ■Ana Mosacua ■Ander Mujika ■Andres Alberdi ■Ane San Martin ■Anne Etchegoyen ■Anua errektifikatuak ■Aranburu bitxi denda ■Arauri lurriedegia ■Argia ■Ariana Nogales (PSOE) ■Armuetara harategia ■Arriere De La Maison De Izaro ■Arrizabal Elkarteak ■Astigarraga Kiroiak ■Aterpe taberna ■Azkue argazkiak ■Azpi' S Bags ■Beitia Arriola fisioterapia ■Beitia Arriola hortz klinika ■Belaustegi jatetxea ■Beristain Mekanizatuak ■Berkoa S.Koop. ■Bitxi bitxi ■Bitxi bizi bitxi ■Bizi Baratzea-Argia ■Bizkor bizikletak ■Bronymec S.A. ■Caixabank ■Caramel goxokiak ■Castrillejo estankoa ■Celia taberna ■Cometel S.A. ■Cristina Garcia estetika eta Terapia Naturalak ■Danobat ■Darama bitxiak ■Debabe Udala Euskalgia ■Debemen ■Denetik bazar txinatarrak ■Deuko Izarra ■Dislegi Debabarrena ■Doña Mercedes Legado Murua ■Doña Mercedes okindegia ■Ecenarro lentzeria ■Egur Arte tailerra ■Eibarko txirindulari elkarteak ■Eibarko Urbat IKE Taldea ■Eizagirre okindegia ■El Gautxo pizzeria ■Elena ileapaindegia ■Elgoibar Ikastola ■Elgoibarko igeriketa taldea ■Elgoibarko Udala ■Emilia Nogales ■Enean mekanizatuak S.L. ■Eñaut Elorrieta ■Eroski Bidaiak ■Eroski Maala ■Errigora ■Errosario hagin klinika ■Esentzia yoga estudioa ■Esther Ibareguren ■Etxepe S.A.L. ■Etxe-Tar S.A. ■Euskaltel ■Euskaltzaleon Topagunea ■Euskaraldia Elgoibar ■Exclusivas Pelegrin ■Fadec ileapaindegia ■Farmazabal ■Ferpi modak ■Fotero okindegia ■G&M jantzi denda ■Gaidu ■Galle-Tiak ■Gararock ■Garate jantzi denda ■Garbiñe estetika ■Gartxot Fidalgo ■Gertu fisioterapia ■Go Bike ■Gotzon Garate Udala liburategia ■Hair's ile-apaindegia ■Haritz Euskal Dantzari taldea ■Herri Eskola ■Hik Hasi ■Hurbil informatika ■Iban Barrenetxea ■Ibarrenea okindegia ■Ibon Serrano ■Idama ile-apaindegia ■Ikus Optika ■ILS ■Ilunpe taberna ■IMH Campus ■Industrias Banat ■Industrias Metala ■Iñigo Azpiroz ■Ipintza margoak ■Iria Modak ■Iriondo altzariak ■Iriondo kirolak ■Iruñe Arriola Andonegi botika ■Iruñe Iriondo ■Iturri taberna ■Izakara estudioa ■Izan Inurri proiektua ■Jai Alai taberna ■Jakin fundazioa ■Jakoba Errekondo ■Jasone Osoro ■Javier Elortza ■Jesus Mari Makazaga ■Jon Magunazelaia ■Jose Alberto Eguren ■Jose Antonio ile-apaindegia ■Juantxo burdindegia ■Julia Arregi ■Kala loradenda ■Kapaingoa ■Karkizano ■Kemen belar denda ■Kideok ■Kilimon Trail (MTE) ■King-Kong taberna ■Kiñu Tools ■Kukuma ■Kultur Kafea taberna ■Kutxabank ■Laboral Kutxa ■Lagun Taldea txirindulari elkarteak ■Lagunak koltxoi denda ■Lanbroa taberna ■Larre okindegia ■Leire ile-apaindegia ■Lete jantzi denda ■Lizagasa sagartokixa ■Maala kafetegia ■Maddi bitxiak ■Magi bitxiak ■Maialen Sanchez Mateos ■Maite Rementería ■Makina Erremintaren Museoa ■Mancisidor S.L. ■Mapfre ■Maraca Diablo musika taldea ■Marcajes Telleria ■Maria Urizar ile-apaindegia ■Marian fruta denda ■Mausitxa baserria ■Mekanosa ■Mendaroko liburategia ■Milar Bire elektrogailuak ■Mintxeta atletismo taldea ■Mintxeta taberna ■Miriam Arriokieta ■Moma jantzi denda ■Morcaiko Mendizale Elkarteak ■Mte Milling Machines ■Munlet ■Nalai oinetakoak ■Nik Behar Dut ■Noaua! Kultur Elkarteak ■Oin Berri podologia zentrua ■Olaia Martinez estetika zentrua ■Olaia Revert Godoy ■Olaizaga Kiroldegiko taberna ■Olalsas Exclusivas S.L ■On informatika ■Orio Arraunketa Elkarteak ■Oskar Urkia ■Pagoaga iturgintza ■Patxi Azpirotz ■Pello Arrieta ■Pitxintxu ■Rural Kutxa ■Sahatzu harategia ■Saia Goait ■Salento pizzeria ■Sallobente elkarteak ■San Pedro jatetxea ■Sanlo Eskubaloi Taldea ■SINUÖSE kultur elkarteak ■Suministros Evia ■Surya belardenda ■Swisslan ■Talleres Tximi ■Tantaka taberna ■Txankakua elkarteak ■Txillarrekodenda ■Txomin harategia ■Udala Ludoteka ■UEMA ■Uxue Alberdi ■Uzuri optika ■Vanessa Mateo ■Xarlem Creations ■Xingola ■Yudego farmazia ■Zalao Arnaiz ■Ziarda harategia ■Zu + Ni ■Zuhatzu euskara elkarteak ...

Argitaratzailea:



Juan Luis Mugertza

Idazlea

Bihurrikeriak



"Zinema inguruko zoruan sakabanatutako kolore bereko sarrerek batzen genituen, gero pegatzeko"

Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaletako arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.885 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria

Gure gazte denboran, Serafino parrokoak herritarrok baino lehenago ikusten zituen ekarritako filmak, eta berak erabakitzen zuen zer ikus genezakeen eta zer ez, bekatuan ez erortzeko. Izan ere, zirriak edota gorputz zati biluziak ikusten baziren filmetan, bera arduratzen zen filmaren zatitxo horiek zentsuratzeaz. Ez dakit, bada, gure irudimenean moztutako eszena horiek ez ote gintuzten bultzatu zinema zaletzera, baina zalantzarik gabe leku handia hartu zuten gure aisialdian, eta gaiztakerietan. Amak emaniko aste-saria motz gelditzen baldin bazen, zinema inguruko zoruan sakabanatutako kolore bereko sarrera zatiak batzen genituen, ondoren pegatzeko eta txartela itxuroso gelditzeko. Egokitutako egunean, elkar ezagutzen ez bagenuen moduan, inoiz banaka, maiz binaka, ziurtasun eta seriotasun handia erakutsiz, eskutxoaren atzamarretan begi bistan gelditzen zen zatia dar-dar, aurrera egiten genuen. Baina ez pentsa trikimailu bakarra zenik; bestelakoak ere bagenituen filma doan ikusteko. Batzuetan, atezaina, filma hasi aurretik, parez-pare zegoen tabernara joaten zen kafea hartzera, eta atea zabalik uzten zuen. Orduan, tartetxo hori aprobetxatzen genuen sartzeko, eta lehenengo solairuan zeuden komunetan ezkutuan egoteko. Eta hantxe izaten ginen baldosen kontra zuri-zuri eginda, arnasari eutsi ezinik, kamuflaturik, jendearen lehenengo arrabotsak entzun arte. Gero, kaiolako txoriak baino askatasun handiagoa hartzen genuen gure guda txikia irabazita, komunetik korrika zinema gelara joaten ginenean. Dena den, dena ez zen iji, dena ez zen aja gure barrabaskerietan. Oraindik oso ondo gogoan dut atezainak bete-bete harrapatu gintueneko eguna: *"Zer, txizalarrri gara, ala? Ospa hemendik, bestela..."*. Esan beharrekoa modu zakarrean esan bazigun ere, hurrengo egunetan kalean topo egin genuenean Olegariorekin, horrelaxe baitzuen izena Odeon zinemako atezainak, luzatutako irribarre maltzurak egindako bihurrikeria barkatzen zigula oso ondo adierazten zuen. Gauzatxo bat: gaurkoa nire azken artikulua izango da. Plazera izan da zuekin konpartitzea. Musu bana.

BARENek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Milesker denoi!

Aurtengo Gabon Zahar ferian Karakate Bizirik eta Baso Biziak taldeek antolatu genuen Elkartasun taloen postua, gure ekimenen hedapen eta finantzaketarako. Jende askoren laguntzarekin atera genuen postua aurrera eta aprobetxatu nahi genuke tarte hau eskerrak emateko: Ibar Txikiri, lana errazteagatik; Salento pizzeriari, sortzen dizkiogun eragozpenak adeitasunez eramateaz gain, beharrezko baliabideak eskaintzeagatik; Udaleko eta brigadako langileei, gure lana errazteagatik, horrelako egunetan topera dabiltzala dakigun arren; Sahatzu harategiari, beti bezain lagunkoi agertzeagatik; azkenik Elgoibarko Izarrari, Gure Bide eta Ego-Toki elkarteei, Gazte Asanbladari,

Malako Jai Batzordeari, ezker abertzaleari eta pentsiodunen mugimenduari, eskuzabaltasunez materiala uzteagatik.

Nola ez, taloak egiten edo bestelako zereginetan jardun zenuten guztioi gure eskerrik beroena, ekimen honen alde zuen denbora eta lana eskaintzeagatik: zuek gabe ez litzateke posible.

Azkenik, eskerrak jan-edanera hurbildu zineten guztioi edo babesa beste era batera erakutsi duzuenoi.

**“Elkartasun taloak” ekimena -
Elgoibarko Baso Biziak eta Karakate Bizirik**






**Azken momentuan
ideiarik gabe geratu zara?**

**Erosi sofán goxo jarri eta film bat ikusteko manta bat;
opari erraza eta polita da benetan!**

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com





Softlan

Albitxuri Industrialdea, 3i
943 748 105
info@softlan.biz - <https://eu.softlan.eus/>

**Gestio programetan
gaude espezializatuak.
Ticket Bai-rako, prestatuak.**

Urte berri on!



Juana Arriola Iriundo


2022ko abenduaren 22an hil zen, 96 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Jose Ramon Arocena Iriundo

2022ko abenduaren 26an hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu
jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Txerra joan zaigu; ezin izan du gehiago eman bere bihotz ederrak.
Beti izango zara gurekin.***



Milagros Arriola Ostolaza

2022ko abenduaren 28an hil zen, 91 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I.URTEURRENA

Jose Mendikute Muguruza


2022ko urtarrilaren 5ean hil zen, 78 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan,
urtarrilaren 7an, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren
eliz-parrokian. Joango zaretenoi, alde zuretik eskerrak.



I.URTEURRENA

Victor Torralba Ena

2022ko urtarrilaren 7an hil zen, 90 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan,
urtarrilaren 7an, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren
eliz-parrokian. Joango zaretenoi, alde zuretik eskerrak.



I.URTEURRENA

Mari Carmen Arrese Iriundo

2022ko urtarrilaren 8an hil zen, 59 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan,
urtarrilaren 7an, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren
eliz-parrokian. Joango zaretenoi, alde zuretik eskerrak.



Irunaga Txiki baserria erabat kiskali zuen suak abenduaren 28an

Abenduaren 28an gertatu zen ezbeharra, eguerdi aldera. Tximiniaren errekontza ganberan piztu zen sua eta berehala zabaldu zen etxe osora. Irunaga txiki baserriak egurrezkoa zuen egitura eta erabat kiskali zuen etxea suak. Kanpo hormak bakarrik gelditu ziren tente. Etsipenez jarraitu zuten gertatzen ari zena etxekoek, Arrate Osorok eta haren seme Iñakik. Arrateren neba Jabierrek kontatutakoaren arabera, ama-semeak etxean zeuden sua piztu zenean, baina berehala konturatu ziren ezer gutxi egin zezaketela teilatuan piztu zen sua amatatzeko. "Han ezin zen ezer egin, sua piztu zenean bertan egon arren ere. Norbera arriskuan jarri besterik ez! Gure modukoa teilatuta igotzen hasterako suak hartuta dauka barrutik dena egurra den etxea. Han jai geneukan".

Arrateko (Eibar) eta Urolako (Azpeitia) suhiltzaile etxeetatik berehala gerturatu ziren



suhiltzaileak, baina haiek ere ezin izan zuten ezer egin etxea salbatzeko. Bertan bizi ez arren, Irunaga Txikikoek egunero egiten zuten ostera baserrira, han dituzten ardi, ganadu eta gainerako abereak zaintzera, eta duela asko ez dela berritua zuten erretila. Garai batean Antonio Arrillaga Elgoibarko mediku ezagunarena izana zen Irunaga Txiki baserria.

Plaza auzotik Arnoaterako errepidean hesi metalikoak jarri dituzte Mendaron



Plaza Auzotik Arnoate baserriraino doan errepidearen zoladura berritu eta hesi-metalikoak jarri dituzte ertzetan, Mendaroko Udalak eskatuta. Zoladura berritzeko obrek 100.154,09 eurotako aurrekontua izan zuten, BEZ barne, eta segurtasun hesi metalikoak ezartzeko, 12.581,34 euro inbertitu ditu orain Udalak, BEZ barne. Plaza auzotik Arnoaterainoko errepidea bost kilometro luze da.

'Bidaia feria' proiektua aurkeztu diete Herri Eskolako ikasleek jubilatuei



Adinekoek gustuko izan ditzaketen bidaien inguruan ikertu dute Herri Eskolako LH4ko ikasleek. Egitasmo honekin komunitatearekin elkarlana, alderdi emozionala eta Hezkuntza curriculumeko ikaskuntzak garatzea zuten helburu, eta abenduaren 22an Elgoibarko Jubilatuen Biltokian izan ziren gaztetxoak emaitzak aurkezten. Proiektu honetarako Elgoibarko Udaleko Gizarte Ongizate Sailaren babesa jaso zuten.

Mausitxakoa izan da 2022ko gaztarik onena eta Gabon Zahar ferriako saltokirik onena, Txillarrekoa

Mausitxakoa izan da 2022ko gaztarik onena, Gabon Zahar Ferriaren barruan, hamalau urtean antolatu duten Gazta Lehiaketa irabazi baitzuen abenduaren 31n. 2022an Jatorri Izendapeneko Kontseilu Erregulatzailerak araututako ardi-gazta lehiaketaren batean irabazi duten gaztagileak lehiatu ohi dira Elgoibarko Gazta Lehiaketan, eta 11 izan dira aurten. Mausitxak 1.500 euroko saria jaso zuen, gazta lehiaketetan ematen den saririk handienetakoa. Pozik zeuden gaztagile elgoibartarrak. Jesus Mari Ansola eta Rosa Salegi Mausitxako gaztagileek onartu zuten azkenaldian ez zirela ari sariketetan emaitza on asko pilatzen, baina azpimarratu zuten euren eusten diotela euren betiko egiteko moduari. Arantza Tapia sailburuaren, Ane Beitia alkatearen eta Eider Mugertza Kalamua elkarteko ordezkariaren eskutik jaso zuten saria Ansola eta Salegi senar-emazteek eta haien hiru bilobek.

Gazta lehiaketakoez gainera, beste sari batzuk ere banatu zituzten, Gipuzkoako barazki postu onenarena esaterako, eta hor ere sari nagusia Elgoibarren gelditu zen, Txillarre baserria nabarmendu baitzuten. Gainera, Gabon Zahar Ferriako postu onenaren saria ere eskuratu zuen Txillarrek. Argiñe Rubio ekoizleak eta haren seme-alabek jaso zuten saria Ane Beitiaren eskutik.

Fruta eta barazki lehiaketak bi atal izan zituen. Batetik, Gipuzkoako saltokirik onenak saritu zituzten, eta bestetik, Gipuzkoatik kanporakoak. Gipuzkoarretan, Edurne Astigarraga ekoizle zumarragarrik jaso zuen bigarren saria eta Mikel Mandiolak hirugarrena. Gipuzkoatik kanporakoen sailean, Gorka Irazabal Gamiz-Fikako Goreko baserriko ekoizleak jaso zuen sari nagusia. Bigarren saria bi lagunentzat izan zen: Alejandro Arrieta markinarrantzat eta Iker Villasana arrietarrantzat. Eta Ispasterko Iparragirre baserriko Igor Letek jaso zuen hirugarren saria. Fruta lehiaketan, berriz, Igorreko Jauriberrigoikoabehekoa baserriko Edurtzeta Atutxa ekoizleak eskuratu zuen Gipuzkoatik kanpoko ekoizleen artean posturik onena zuenari zegokion sari nagusia eta Ispasterko Igor Leterentzat izan zen bigarren saria. Gipuzkoarren



sailean lehenengo bi sariak hutsik lagatzea erabaki zuen epaimahaiak eta hirugarren saria Aretxabaletako Untzilla baserriko Joxe Lonbidek jaso zuen.

Bi aipamen berezi ere egin zituzten. Elgoibarko Urruzuno bailarako Intxusitza-azpiko baserriko Iraitz Maguregik jaso zuen bata, mendiak garbier zaintzeagatik (hirugarren argazkia), eta bestea Arantxa Zubia ekoizle mallabiarrari eman zioten, 35 urtean hutsik egin gabe etorri delako Gabon Zahar Ferriara.

Komunitatearen alde doan egiten duten lana eskertu die Elgoibarko Udalak herriko boluntarioei

Boluntarioak faltako dira leku askotan behar bada, baina oraindik ere bada jendea boluntariotza-programetan izena ematen duena eta herriko edo zeinbat taldetan musutruk lanean aritzen dena. Hain justu ere horiek guztiek egiten duten lanari balioa emateko antolatu du Elgoibarko Udalak estreinakoz Boluntariotzaren azoka. Abenduaren 22an egin zuten azoka eta Elgoibarko hogeita bi elkarte hartu zuten parte. Denbora, eskarmentua eta ezagutza jartzen dituzte boluntarioek, trukean ezer eskatu barik, eta haiei esker bizirik diraute egun ekimen eta proiektu askok. Hala aitortu zuen Ane Beitia alkateak ere, eta esker on berbak izan zituen boluntario guztientzat: "Gure elkarteei esker, jarduera ugariz goza dezakegu. Egiten duten lana ezinbestekoa da jarduera asko garatzeko,



horregatik, elkarte horiek egiten duten lanari esker, Elgoibar herri bizi-bizixa da".

Sarituek jaso dituzte Txankakuak zozkatu dituen saski ekologikoak




Abendu hasieratik 22ra arte Txankakuaren dendetan erosketak egin zituztenen artean produktu ekologikoz betetako zazpi otarra zozkatu zituen abenduaren hondarretan merkatarien elkarteak. Argazkian, saskia etxeratu zutenak ageri dira, edo haien etxeak zenbait kasutan. Saridunen izenak, hemen: Tania Sanz, Cristina Arizmendiarieta, Rosa Mata, Nekane Etxeberria, Yolanda Rumayor, Agurtzane Unamuno eta Nekane Altube. Era berean, baina, 500 euroko bi bono-txartel eta 100 euroko zortzi ere zozkatuko dituzte urtarilaren 9an, notario aurrean.

"Alternatibarako aukera bakarra" EHBildu dela nabarmendu dute



Lokal berria eta Udal Huteskundeetarako alkategaia, Aitziber Aranberri, aurkeztu zituen Elgoibarko EHBilduk abenduaren 29an. Ekitaldian Aitziberrek berak eta Arnaldo Otegi EHBilduko koordinatzaile nagusiak hartu zuten hitza. Mundua aldatu nahi bada jende konprometitua behar dela esan zuen Otegi eta eskerrak eman zizkien Udalean ardurak hartu zituzten alderdikide guztiei. Aranberrik, berriz, esan zuen urte zaila izan dela 2022a eta ez dela Elgoibarko Udala "plaza erraza", baina ez duela zalantzarik egin alkategai izateko, "erronka handia izanda ere".



OSTEOPATIA

Victoria Iraegui

Osteopata kolegiatua: 0299 zk.

TEKNIKAK: Pediatrikoak / Egiturazkoak /
Garezurrekoak / Erraietakoak /
Somato-Emozionalak / Posturologia/
Drainatze linfatikoak

Haurdunaldiaren jarraipena, haurdunaldiko osteopatia erabilia

Haurdunaldian, emakumearen gorputzak eta haren psikeak hainbat aldaketa jasaten ditu, fetua eroso egon dadin umetokian eta behar bezala haz dadin. Haurdunaldiko osteopatiak onura ugari ditu haurdunaldian. Fetua behar bezala garatzeko eta erditzea bera eta erdi ondorengoa ahal den onenak izateko gorputzak jasaten dituen aldaketa horietarako prestatzen gaitu, sortzen diren minak saihesten edota arintzen laguntzen duen heinean.

Onurak:

Pelbis-egitura lunbarren funtzio on batek mugimendu, egokitzapen eta oreka ona ematen die egiturei, eta haurtxoaren buruari ahokatzeko eta irteera egokia errazten dio, pelbisak ez baititu hainbeste finkapen izango eta erlaxatuago eta malguago egongo baita, dilatazio- eta kanporatze-aldia erraztuz.

- Mesede egiten du amaren eta haurtxoaren lotura psiko-emozionalean.
- Uteroaren dilatatzeko eragindako organoen desplazatzea orekatzen du
- Sistema baskularren eta linfatikoaren zirkulazioa eta drainatzea hobetzen du
- Buruko minak gutxitzen ditu.
- Goizeko goragaleak murrizten ditu.



659 332 423 - 943 740 770

victoriairaegui@gmail.com



Pedro Migel Urruzuno 21 behe (Urnobitza alboan)

EXPRESS ESKAINTZAK!

BOSCH WRT85V91ES ARROPA-LEHORGAILUA



A

499 €

- 9 kg-ko karga
- 1200 b/min-ko zentrifugazio-abiadura
- Amaiera geroratua
- Etenaldia + karga

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

PSE-EE
PSOE

PSE-EE GIPUZKOAKO

Feliz 2021!

URTE BERRI ON!

Etorkizun berri bat eraiki dezagun,
ezkertiarra, soziala eta berdea.

José Ignacio Asensio
GIPUZKOAKO PSE-EEko IDAZKARI NAGUSIA

EGUBERRIAK BETIKO ERAN

✍ Ainhoa Andonegi
📷 Asier Orbea / Ainara Argoitia

Bi urteko etenaldiaren ostean, aurtengo Eguberriak betiko moduan ospatu zituzten Elgoibarren, zein Mendaron. Eguraldiak ere lagundu zuen, eta kalean festa-giroa nagusitu zen. Olentzero eta Mari Domingiren etorrerak kaleak jendez bete zituen abenduaren 24an, eta urteko azken egunean ere, herriko zein kanpoko jende asko ibili zen Gabon Zahar ferian. Orriotan batu ditugu Eguberrietako hainbat une. Argazki gehiago eta bideoak ikusteko: barren.eus













Haritz Euskal Dantzari taldeak 50. urteurreneko egitaraua aurkeztu du



Haritz Euskal Dantzari Taldeak 50 urte beteko ditu aurten, eta urte osorako egitaraua prestatu du, urteurrena ospatzeko. 1973ko abuztuaren 24an irten ziren plazara estreinakoz, Elorra eta Ongarri taldeetan zein Elgoibarko Izarra dantza eskoletan ibilitako hainbat dantzari eta txistulari. San Bartolome Eguna zen, eta soka-dantza egin zuten Kalegoen plazan. Huraxe izan zen Haritz Euskal Dantzari Taldearen hasiera, eta ordutik, ez du dantzak etenik izan Elgoibarren. Abuztuan beteko ditu taldeak ofizialki 50 urte,

baina urte osoan zehar egingo dituzte urteurrena ospatzeko ekintzak. Hitzaldiak, dantzaldiak, erakusketak eta beste hainbat ekitaldi iragarri dituzte, eta urtarrilean bertan hasiko dituzte ekintzak, ikasleentzako antolatu duten marrazki lehiaketarekin. Hilero egongo da ekintza bat, eta ekainaren 17an Haritz Eguna ospatuko dute. Ohiko auresku txapelketaz, folklore jaialdiaz, Errosarioko Ezpata Dantzaz eta Plazara Dantzara erromeriaz gain, erraldoien topaketa, plazako dantzak eta beste hainbat jaialdi izango dira aurten.

'Sexberdinak' antzezlana taularatuko dute urtarrilaren 13an, Herriko Antzokian

Tanttaka Teatroak *Sexberdinak* antzezlana taularatuko du urtarrilaren 13an, Elgoibarko Herriko Antzokian. Mireia Gabilondok zuzendutako lana da, eta ezgaitasuna duten pertsonen sexualitatea nola bizi duten kontatzen du. Telmo Irueta eta Aitziber Garmendia ariko dira Nico eta Ana protagonisten azalean sartuta. Garun paralisia duen Nicoren eta amatasunaren gaiarekin topo egiten duten Anaren arteko kontakizuna da obra. Garun paralisiagatik egunero-egunero topatzen dituen arazoak bistaratzen ditu Nicok, eta sexualitatea nahiz maitasuna nola sentitzen dituen ikustarazten du. Anak, berriz, hain bistakoak ez diren paralisiak erakusten ditu, hala



nola amatasuna eta denboraren iragankortasuna, emakumezko baten bizitzan. Antzezlana 19:00etan izango da. Sarrerak erosteko: herrikoantzokia.eus

Gaur arratsaldean iritsiko dira ekialdeko errege magoak Elgoibarrera eta Mendarora



Ekialdeko errege magoak gaur arratsaldean iritsiko dira gurera. 18:00etan hasiko dute desfilea Mendaron, Moxuaneko parean, eta herria zeharkatu ostean, frontoian jasoko dituzte umeen gutunak.

Elgoibarren, bestalde, Santa Klara auzotik iritsiko dira errege magoak, zaldiz. Kalegoen plazan egingo diete herritarrek harrera, eta jaioberri den

Jesus haurtxoa gurtzera joango dira eliza atarira.

Urrea, intzentsua eta mirra eskainiko dizkiote umeari, eta horren ondoren, kalez kale ibiliko dira. Herri osoa zeharkatu ostean, udaletxeko arkupeetan jasoko dituzte Meltxorrek, Gasparrek eta Baltasarrek umeen gutunak, gaur gauean opariak banatzeko. Bihar, kristau ikasbidekoen mezan ere hartuko dute parte erregeek.

Errege Eguneko kontzertu berezia emango du bihar Udal Musika Bandak

Elgoibarko Udal Musika Bandak kontzertu berezia emango du bihar, Herriko Antzokian. 12:30ean hasiko da emanaldia, eta Gorka Mujikak zuzenduko du saioa. Sei abesti prestatu dituzte


biharko: *Federband* (Ferrer Ferran), *Euskeria* (M. San Miguel), *Mambo jambo* (D. Perez-Prado), *Fest march* (Johan Strauss), *Feurfest* (Josef Strauss), eta *La Chase* (Johan Strauss).

Eduardo Arrillagak Buñoleko Tomatinaran ateratako argazki bat saritu dute

Buñoleko Tomatina jain ateratako *En el fragor de la batalla* izeneko argazkia aurkeztu zuen Arrillagak Asisafoto nazioarteko argazki lehiaketara, eta ohorezko aipamena jaso du *Iribarreak* kategorian. Sei atal ditu lehiaketak: Gai libreko argazki kolore bakarrekoak, kolorezkoak, kirola, natura, bidaiak eta irribarreak. Azken hori, irribarreak protagonista diren atala da, eta mundu osoko argazkilariek bidalitako milaka argazki jasotzen dituzte: Aurten, 7.450 argazki. Abuztuko azken eguaztenean ospatzen dute Buñolen (Herrialde Katalanak) 'Tomatina', sona handia hartu duen jai. Festazaleek elkarri tomateak jaurtitzen dizkieten jaiari buruzko bilduma osatzen ari da



Eduardo Arrillaga argazkilaria elgoibartarra, eta urte batzuetarako lana izango badu ere, hasi da etekinak jasotzen.




I.URTEURRENA

Gregorio Vives Zabaleta

1944-06-21 / 2022-01-05

**Gu sortu ginen enbor beretik,
sortuko dira besteak.**

Etxekoak




II.URTEURRENA

Sabin Osoro Unzueta

2021eko urtarrilaren 8an hil zen, 98 urte zituela.

**Egunak joan dira
eta badoaz,
baina zu ez zara gugandik askorik aldendu.
Gure gogoan zara, Sabin**

Etxekoak




VI. URTEURRENA

Pedro Jose Ansola Garate

2017ko urtarrilaren 5ean hil zen.

**Urteak igaro diren arren
eta ez pauso geldoan
zenbat momentu, zenbat bizipen
elkarrekin luzaroan.
A ze zortedunak izan ginen
zu izanik gure alboan!
Ta jakin ezak, Mauxi laguna,
zaudela gure gogoan,
zuganako gure maitasuna
ez baitago lozorroan.**

Erre Arte Kuadrilla



Mugertza krosa irabazitako Barega eta Jebitok izango dira aurtengo izarretako batzuk

Domekan jokatuko dute Juan Muguerza Nazioarteko krosaren 79. ekitaldia, eta lasterketa entzutetsuak World Cross-Country Gold kategorian izango du berriro ere, World Athletics federakuntzak kros onenei ematen dien maila. Hala, Euskal Herrian jokatzeko den atletismo ekitaldirik garrantzitsuenak goi mailako parte-hartzea izango du berriro ere. Eguaztenean aurkeztu zituzten krosetan parte hartuko duten antxixikari nabarmenenak. Gizonezkoetan Selemone Barega (Etiopia, 2000) izango da izarrik nagusiena, ezbaierik gabe. Duela bost urte, 18 urte besterik ez zituela, Elgoibarren erakutsi zion munduari atletismoko izar berri bat jaio zela. Oraindik izenik ez, baina elitera jauzi egiteko zorian dauden atletak bilatu eta Mugertza krosak eskaintzen duen erakuslehoan mundura ezagutzera ematea gustatzen zaie Mintxeta atletismo taldeko arduradunei, eta halaxe gertatu zen Baregarekin. Eurretan eta lokatz artean jokatu zen Mugertza krosaren 75. ekitaldia irabazi zuen etiopiarrek, bere adin bereko Jakob Kiplimo ugandar gaztearekin lehia bizian eta ikusgarrian aritu eta gero. Harrezgero, garaipen garrantzitsuak eskuratu ditu Baregak. Urrezko domina irabazi zuen Tokioko Olinpiar Jokoetan, 10.000 metroko lasterketan, eta ia izar handietakoa izan zen Eugenen (AEB) jokatu zituzten Munduko Atletismo Txapelketan, urrea irabazi baitzuen 3.000 metrotan eta zilarra 5.000 metroko proban. Birhanu Balew (Bahrain, 1996), Zakariya Mahamed, Adel Mechaal, Carlos Mayo, Santiago Catrofe, Fernando Carro, Javi Guerra edo Pol Oriach dira gizonezkoen lasterketa nagusian arituko diren beste atleta nabarmen batzuk.

Emakumezkoen lasterketa nagusirako momentuko atletarik onenak ekartzen saiatu direla esan du krosetako zuzendari Zigor Diezek. Edinah Jebitok (Kenya, 2001) izango da lasterketa irabazteko favorito nagusia, besteak beste, badakielako zer den Elgoibarren irabaztea, bera gailendu baitzen ia. Jebitok sailtatuta dago otsailean Australian, Bathurst hirian, jokatuko duten Munduko Kros Txapelketa jokatzeko, eta badu meritua lehia izugarria baita Kenyan. Iazko irabazleak Margaret Chelimo Kipkemboi herrikidea izango du aurkari gogorrenetariko bat Mintxetan. Munduko txapelketetan podiumera igotakoa da Kipkemboi, ia brontzezko domina lortu zuen 10.000 metroko lasterketan eta 2019an zilarrezkoa 5.000 metrokoan. Francine Niyonsaba (Burundi, 1993) ere gertutik jarraitzeko atleta izango da. Hamazazpi alditan irabazi du Diamond League prestigiotsuko probaren bat eta kros denboraldi honetan Venta de Bañoseko krosa irabazitakoa da. Tokioko Olinpiar Jokoetan bosgarren postuan sailkatu zen 10.000 metrokoan. Rahel Daniel gazteak ere (Eritrea, 2001) izan dezake zeresana, ia bigarren postuan amaitu baitzuen munduko kros denboraldia. Eta horrez gainera, Atapuercako kros garrantzitsua irabazi berri du. Favoritoen sorta osatzeko Winfred Mutile Yavi (Bahrain, 1999) aipatu behar da. 3.000 metroko oztopo proban historiako seigarren markarik onena dauka eta proba horretan laugarren egin zuen azkenengo munduko txapelketan.



Imanol Alvarez txirrindularia profesionaletan lehiatuko da Java Kiwi Atlantico taldearekin

Txirrindulari profesional izatea oso zaila dela aitortzen zuen arren, horixe zuen begiz jota Imanol Alvarezek duela ia bi urte BARREN aldizkariari eman zion elkarrizketa batean azaldu zuen moduan: profesionaletara salto egin nahi zuen eta 2021. urtea amaitzerako lortu nahi zuen gainera. Nahi zuena baino urtebete beranduago, baina ailegatu zaio profesionalekin lehiatzeko aukera, Java Kiwi Atlantico taldeak fitxatu baitu, eta hala, kontinental mailan lehiatuko da denboraldi honetan. Alvarezek Eiser Hirumet taldean egin ditu azken urteak afizionatuetan. 2021. urtean maila handian aritu zen, bere talde berriko arduradunek nabarmendu duten moduan. "Afizionatu mailako txirrindulari osoenatarikoa eta etorkizun handienatarikoa zuena zela erakutsi zuen, hogei lasterketa baino gehiagotan lehen hamarren artean sailkatuta. 2022. urtea, aldiz, ez zen Imanolek uste zuena modukoa izan, baina hala eta guztiz, bere konstantziak eta profesionaltasunak ireki dizkiote ateak gurekin, Java Kiwi Atlantico taldearekin, aritzeko", adierazi dute. Taldeko zuzendari Enrique Salgueirot aitortu du aspalditik zeudela algoibartarraren pedalkadei adi. "2021 osoan egin nion jarraipena eta oso adi jarraitu nuen bere bilakaera. Txirrindulari oso interesarria dela iruditu zitzaidan, gertutik jarraitzekoa. Gure taldera batzeko eduki dugun lehen aukeran ez dut zalantzarik izan eta uste dut bera etortzea guztiontzat izango dela ona. Lehiatu ahal izateko lasterketa egutegi ona eskaini ahal izango diegu guk berari, txirrindulari profesional moduan hazteko aukera izan dezan", adierazi du Salgueirot.



Billabaso nagusitu da idi kintopekoen Euskadiko txapelketan



Sigmako probalekuan jokatu zuten, abenduaren 26an, 2022ko Euskadiko Idi Kintopekoen Txapelketa. Lau idi pare lehiatu ziren, eta Jatabeko (Bizkaia) Billabasok jantzi zituen txapela eta eraman zuen manta. Iñaki Urrutia itzainak gidatuta, bi idi gazteek 55 plaza, zinta bat eta 3,66 metroan mugitu zuten 1.680 kiloko harria, orduerdiko saioan. Idi-pareek ezin zuten 1.140 kilo baino gehiago pisatu, bestela kilo bakoitzeko kilo eta erdiko gainkarga hartu behar zuten harri gainean. Irabazleek 1.400 euroko diru-saria, garaikurra eta idi probetako

irabazleei ematen dieten idientzako mantak jaso zituzten sarritzat. Zornotza anaien (Zalla, Bizkaia) idi pareak egin zuen bigarren markarik onena, 53 plaza osatuta. Txapeldunordeak 1.200 euroko diru-saria jaso zuen. Hirugarren postuan sailkatu zen Belamendik (Errezil, Gipuzkoa) 52 plaza egin zituen, eta 1.100 euroko saria eskuratu zuen. Azkenik, 47 plaza, zinta bat eta 1,97 metroko markarekin Ignacio Olidenen idi pare (Orio, Gipuzkoa) sailkatu zen laugarren postuan. Laugarren sailkatuak 1.000 euroko saria jaso zuen. (Argazkiak Ibon Errazu)

San Anton pilota txapelketako bigarren finalerdiak, gaur

A benduaren 30ean hasi zen San Anton Pilota txapelketaren 30. edizioa, eta gaur jokatuko dituzte gainerako finalerdiak. Lagunak pilota eskolak emakumeen Lau t'erdiko txapelketa antolatu du estreinakoz eta Naroa Agirre eta Madalen Etxegarai aritu ziren elkarren aurka lehen finalerdian. Etxegarai ofñatiarra nagusi izan zen partidaren lehen zatian, eta aise irabazi behar zuela zirudien. Eskuz banakako partidetan, baina, abantaila handia ematen du sakeak eta horri esker markagailuan hurbiltzea lortu zuen Agirre pilotari zestoarrak, 16an gelditu bazen ere. Promesa mailako gizonetzkoen lehiari bikote indartsua osatzen dutela erakutsi zuten Unai Amianok eta Carmelo Lozanok, eta finalerako txartela lortu zuten, Beñat Apezetxea eta Ionan Peñalver bikote nafarrari 22 eta 14 irabazita. Senior mailako finalerdian Iñaki Elolak eta Ekain Lizeagak 22 eta 9 irabazi zieten Beñat Senarri eta Javier Cuairani. Aurrera Tolosa taldeko pilotari den Elolak agindu zuen aurreko koadroetan.



Gaur, hilak 5, 21:30etik aurrera jokatuko dituzte bigarren finalerdiak. Lau t'erdiko lehiari Miriam Arrillagak eta Miren Larrartek jokatuko dute. Promesetan Irribarria Iik eta Landak Zubizarreta

eta Beloki izango dituzte aurkari, eta senior gizonetzkoen finalerdian, Muruak eta Apezetxeak Mata eta Ugartemendia bikotea izango dute kontra. Finalak urtarrilaren 13an jokatuko dituzte.

Aurkeztu dute Astigarraga trail taldea



Casa Astigarraga Trail Taldearen (CATT) aurkezpen ofiziala egin zuten abenduaren 23an, Kultur Etxean. 32 kidek osatzen dute taldea, eta euren burua ezagutzera emateko gogotsu eta ilusioz beteta daudela azaldu

zuten aurkezpenean. Hori dute asmoetako bat, taldeari izena eta ikusgarritasuna ematea, eta taldekide bakoitzak, doan tokira doala, "harrotasunez erakustea taldearen izena eta jatorria".

LANA

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago.

647 533 201

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. Titulua daukat. 641 322 939

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia daukat. Gabonetako jaiegunetan ere lan egiteko prest nago. 652 020 464

Eskaintza

Fadek ile-apaindegirako langilea behar da.

943 742 692 / 624 646 336

GARAJEAK

Garaje itxia alokatzen da Maalan, Malape taberna azpian.

666 269 636

ETXEBIZITZA

Etxe polita alokatzen dut, San Frantzisko kalean. 4. pisua, igogailurik gabe. Logela bat, egongela, sukaldea...

660 042 159 (arratsaldez deitu)

Merkatu txikiko iragarkiak bi astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta).

Autoak saltzea: 18€ .

Bestelakoak: 10€.

Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.


BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:
Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta).

Autoak saltzea: 15€.

Bestelakoak: 8€.

Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzkoako Enkainatutako Administrazioaren Lurralde-Kontseilua</p>  <p>ROSA Mª PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Gure komunitateko bizilagun batek zuntz optikoa jartzea eskatu du, baina komunitateak ezetz erantzun dio, kableak fatxadatik pasatu behar direlako. Jakin nahi nuke komunitateak badaukan ezetz erantzuteko eskubidea edo, aldiz, bizilagun horrek egin dezakeen instalazio hori.</p> <p>Legearen arabera, eraikinetako telekomunikazio zerbitzuen instalazioa edo aurretik daudenak berritzea eskatu dezake edozein etxejabe, eta erabakia hartu beharko du komunitateko kideen kuoten herenak, betiere partaidetza kuoten herena ordezkatzeko badute.</p> <p>Komunitateak ezingo die instalazio berrien edo azpiegitura komuneko egokitzeko lanen gaineko kostuak eta ondoren etorriko diren mantentze kostuak eskatu hori egitearen aldeko botoa eman ez duten bizilagunei. Hori bai, gerora eskatuko balute telekomunikazio edo energia zerbitzu horietarako sarbidea, eta horrek eskatuko balu instalazio berriak edo egindako egokitzapenak erabiltzea, dagokien kostua ordaindu beharko lukete; kostu eguneratua eta interes legalak ezarrita.</p> <p>ONDORIOA: Instalazioa elementu komunetan egin behar da. Hau da, fatxadan, baina errespetatu egin behar da eraikinaren estetika eta aurretik dagoen kableatua eta jarriko den kableatu berria ordaindu behar dira.</p>  <p>AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	---

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora,
barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.




Zorionak, **Lea**, abenduaren 30ean 4 urte bete zenituelako. Primeran ospatu genuen zure eguna! Muxu handi bat, etxekoan partez.



Zorionak, **Udane**, gaur 6 urte bete dituzulako. Patxo handi bat familiako guztien partez.



Zorionak, **Xune!** Urtarrilaren 8an, 8 urte! Muxu handi bat familia osoaren, eta bereziki, Haizearen partez. Iganderako prestatu belarriak!



Zorionak, **Lur** eta **Adolfo!** Batera ospatuko dugu aurten ere zuren eguna. Patxo handi bana.



Urtea hasteko modurik onena eta goxoen, zuren urtebetetzea ospatzea! Jatorrak eta maitagarriak zarete! Zorionak, **Onintza** eta **Zohargil!**



Zorionak, **Ander**, zure 10. urtebetetzean. Patxo potolo bat familiakoan partez.



Zorionak, **Ihintza!** Astelehenean 11 urte! Ondo-ondo pasa eguna. Gu, txokolatadarako prest! Muxu potolo bat, Errioxa, Ondarru eta Elgoibartik.

Erretratu bakarrek agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarrek agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

BARREN astekaria

ADI! Telefono zenbaki berria dugu:

 **688 655 658**

Whatsapp mezuak **bidaltzeko** zenbaki berria erabili behar duzue **aurrerantzean!**





ASESORIA GOAR

**KONTABILITATEA
AHOLKULARITZA FISKALA
ASESORIA LABORALA**

Urte berri on!

San Bartolome, 2 behea - Elgoibar
asesoria@asesoriagoar.com

Tel: 943 742 674 / 943 740 234
Faxa: 943 742 129

5 EGUENA

18:00 Errege magoen desfilea Elgoibarren. Santa Klaratik etorriko dira Kalegoen plazara, eta gero, kalejira egingo dute herrian zehar.

18:00 Errege magoen desfilea Mendaron.

21:30 San Anton pilota txapelketako finalerdiak. Lagunak taldeak antolatuta, Ikastolako frontoian.

6 BARIKUA

11:00 Kristau ikasbidekoen meza. San Bartolome parrokian.

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua. Herriko Antzokian.

7 ZAPATUA

16:15 Bilbon presoen alde egingo duten manifestaziora joateko autobusa. Txankakuako geltokian. Jai Alai, Iturri eta Lanbroan eman behar da izena.

19:30 Mugertza kroseean parte hartuko duten atletei harrera. Kalegoen plazan.

8 DOMEKA

10:00 Nazioarteko Juan Mugertza krosa. Mintxeta atletismo taldeak antolatuta, Mintxetan.

12 EGUENA

19:00 Isiltasun Eskola. Kultur Etxeko sotoan.


19:00 C.D. Elgoibarren ezohiko batzarra. Kultur Etxean.

13 BARIKUA

19:00 Antzerkia: 'Sexberdinak'. Tanttaka Teatroak taularatuko du, Herriko Antzokian.

21:30 San Anton pilota txapelketako finalak. Lagunak pilota elkarrekin antolatuta, Ikastolako frontoian.

23:00 Kontzertua: Odei. Sinuõsek antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.



Manuela Zabala Larrañaga

2022ko abenduaren 31n hil zen, 97 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

*Izan zarena,
erakutsi duzun kemena,
gure artean geldituko da
zugandik jasotako dena.*

Etxekoak



Zinea



'I wanna dance with somebody'

7 zapatua: 19:00 / 22:15
 8 domeka: 19:00
 9 astelehena: 21:00

'Rabbit academy: Pazko arraultzaren lapurreta handia'

8 domeka: 16:30
 2 astelehena: 21:00

2023ko botika ordutegiak: 09:00-13:00 / 16:00-20:00
 GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)
 OHARRA: 2023an ez da iluntzeko farmazia zerbitzurik egongo Elgoibarren.

URTARRILA

- 5 EGUENA
- 6 BARIKUA
- 7 ZAPATUA
- 8 DOMEKA
- 9 ASTELEHENA
- 10 MARTITZENA
- 11 EGUAZTENA
- 12 EGUENA
- 13 BARIKUA

Egunez

- Yudego
- Barrenetxea
- Barrenetxea
- Barrenetxea
- Ibañez
- Garitaonandia
- Arriola
- Fernandez
- Yudego

2023 urte guztian, gauzez: 22:00-09:00
Cristina Sanchez Castaño - Julian Etxeberria, 7 (Eibar)
943 203 052

■ Fernandez: Herriko Enparantza,4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142	■ Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638	■ Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384
---	---	---



Javier Urbieta Uranga

2023ko urtarrilaren 3an hil zen, 81 urte zituela.
 Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
 bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Zure bizitza eman zenuen
 etengabeko lanean,
 bizipen guztien ondoren zaude
 betiko atsedenean.
 Guk ere deia izango degu
 uste gutxienean,
 orduan ere hortxe izango
 gaituzu aldamenean.**



Etxekoak



Domekan jokatuko dute Mugertza Krosa Mintxetan, 79. aldiz. Tradizio handiko kirol ekitaldia da Elgoibarren, eta betidanik izan du korrikalariari harrera beroa egin izanaren fama; beste herrietan ez bezala hartzen dituztela korrikalariak Elgoibarren, alegia. Gaur egun ere, krosaren bezperan harrera egiten diete Udalean, eta argazki honetan ikus daitekeenez, harrera hori ere aspalditik egiten den kontua da. Argazki zahar hau Kondetarrek bidali dute BARRENERA, izebaren argazki artxibotik aterata, eta ez dakite seguru zein urtetakoa den, baina 1964 ingurukoa izan daiteke, estreinakoz 1963an etorri zelako Wolde Elgoibarrera. Udaletxeko pleno aretoan aterata dago argazkia, korrikalariari harrera egiteko ekitaldian, hain zuzen ere. Garai hartan Konde taberna zegoen plazan, eta handik eraman zuten jan-edana udaletxera. Gogora ditzagun zeintzuk diren argazkian ageri direnak:

Aurrean, Konde tabernako Itziar Konde Isasi-Isasmendi (♣) eta Mamo Wolde (♣) korrikalari etiopiar ospetsua ageri dira, eta atzean eskuman, Jose Luis Rivate Ego-Toki elkarteko kidea, irribarrez. Garai hartan, Ego-Tokik antolatzen zuen krosa. Ezkerrean ikusten dena Patxi Alkorta donostiarra da. Berea izan zen txapeldunei txapela oparitzeko ideia, eta gaur egun Realak gol sartzen duenean txapligoak botatzeagatik da ezaguna. Bere ondoan ageri dena krosetako babesleren bat izan daitekeela esan digute. Urte hartan, Konde tabernakoek zahatoa oparitu zioten Wolderi. Behin baino gehiagotan irabazi zuen Mugertza Nazioarteko Krosa Woldek: 1963, 1964, 1967 eta 1968 urteetan. 1968ko Olinpiar Jokoetan, Mexikon, Maratoia irabazi zuen eta 10.000 metroko lasterketan txapeldunorde izan zen. 1972ko Olinpiar Jokoetan, Munichen, brontzezko domina jaso zuen Maratoiko proban. 2002an hil zen Wolde.



ROSA M^a PINTADO
Ettxaldeen administratzailea
749 kolegiatu zenbakiduna

660 969 679 / 943 742 184
rosapf@telefonica.net



Aholkularitza
kolaboratzailea



ETXALDEEN ADMINISTRAZIOA ELGOIBARREN



Arreta

- Bezeroarentzako arreta 365 egunez
- Kudeaketa serioa, zintzoa eta pertsonalizatua
- Eskubideen eta betebeharren gaineko informazioa
- Akordioak izenpetzeko aholkularitza juridikoa
- Bitartekaritza lanak
- Behar beste ezohiko bilera

- Komunitatearen agiriak eskuratzeko aukera
- Jabeen kontuen gaineko informazioa komunikatzea
- Komunitatearen egoeraren gaineko hileroko laburpena
- Datu eguneratuak, eskura

Gardentasuna



Kontrola

- Aurrekontuen azterketa eta kudeaketa
- Notaritza eta erregistroetako tramiteak
- Lanen ikuskatzea
- Kontratuen egiaztatzea
- Zor diren kuoten jarraipena eta kudeaketa

25 URTE BAINO GEHIAGOKO ESPERIENTZIA PROFESIONALA



Consejo Vasco de Colegios
de Administradores de Fincas

Euskadiko Finka Administrazioaleen
Lurralde Kontseilua





BELAUSTEGI

— BASERRIA —

*Errege egun
zoragarri bat
opa dizuegu!*

